

MU Kirol Zerbitzuak Beti Ona gimnasioaren erabilera itxi du ikasturte honetarako

2014/06/12

Azaroan hasi genuen zerbitzu berri hau, astelehen eta ostegun eguerditan 12:30-14:30 bitartean gimnasioan erabilera librea izateko aukerarekin, edo nahi izanez gero, Teknika Hipopreibo eta Spinningeko klaseekin. Guztira 25 izan dira aurtengoan zerbitzu hau erabili izan dutenak eta datorren ikasturte hasieran zerbitzuarekin jarraitzeko saiakera egingo du Kirol Zerbitzuak berriz ere, ikasle eta langileei jarduera fisikoa egiteko erraztasunak eskainiz.

Eskerrik asko parte hartzaile guztiei eta gogoratu jarduera fisikoa alde batera ez uzten!

